

8. JARDUERA: NI, NI HAZI BAT NAIZ NI (PSIKOMOTRIZITATEA)

Ariketa honen helburua gorputz adierazpenaren bitartez landareen garapenaren faseak gorputzarekin adieraztea izango da. Ariketa hau psikomotrizitate gelan egingen da. Erabiliko dugun materiala hauek izango dira: oihal handi bat. Haurrak lurrean ezarririk daudela, irakaslea landareen inguruko eboluzioari buruzko ipuin bat kontatuko du, haurrak gorputzarekin hori antzezten duten bitartean.

“Landare haziak gara, eta lur azpian (oihalen azpian) gaude. Negu gorria da, eta hotz dago kanpoan; baina gu babesean gaude, lotan. Udaberria datorrenean, eta beroa eta euria harekin, handitzen-handitzen hasten gara. Eguzkiaren beroak hazten laguntzen digu, eta dagoeneko ez gara kabitzen lur azpian. Bultza eta bultza, lur azpitik atera dugu jada burua (oihalpetik ateratzen hasten gara, eta belauniko jartzen). Eguzkiak gorputz osoa berotzen digu, eta euriak ere (konfetiak) busti egiten gaitu. Hazten ari gara: zutik jartzen eta, nagiak ateraz bezala, luzatzen gara. Landareak gara: ezin gara inora joan, baina «eguzkia nora, gu hara» makurtzen gara, eta haizearen arabera kulunkatzen”.